

# BERANGO

## gaur

68 ZBKIA 2018KO MARTXOA

BERANGO GAUR HILABETEKARIA  
BERANGO GAUR MENSUAL

[www.berango.net](http://www.berango.net)



**Berango**  
Guztuen konpromisoa  
Un compromiso común  
21

[berangokoudala@berango.org](mailto:berangokoudala@berango.org)



## 2018KO AURREKONTU PARTE-HARTZAILEEI 277 AUZOKOEN EKARPEN AURKEZTEN DITUZTE

HIRIGINTZAREN GAINEKO KONTUAK UGARIENAK DIRA ETA PROZESU HONETAN EKARPEN GEHIENAK EMAKUMEEK EGIN DITUZTE

**B**erangoko UDalak martxan jarritako Aurrekontu Parte-hartzaileen helburu nagusia auzokoen ekarpenak kontuan izatea da. Parte hartu duten herritarren iritzia baliagarria izango da kontuak lantzeko orduan, biztanleriak herriaren kudeaketan parte-hartzea lortuz. 203 galdeketa jaso dira: herrian eta udal-bulegoetan jarritako postontzietan 27, informazio-karpetan beste 50, 90 udaleko web orrialdearen bidez eta beste 36 partaidetza@berango.eus posta elektronikoren bitartez.

Guztira, 277 iradokizun egon dira, hauetako 174 Hirigintza, Ingurumena eta Lanak eta Zerbitzuak Sailei dagozkienak; 72 Euskara

eta Heziketari buruz; 23 Kultura, Kirola eta Berdintasunari buruz; 4 Gizarte-Ongizatearen inguruan eta beste 4 Gazteria, Sustapen Ekonomikoa eta Enpleguari buruzkoak izan direlarik

Hirigintza-esparruarekin lotutako proposamenei dagokienez, argiztapena, asfaltatzea, garbiketaren hobekuntza, herriko zonalde desberdinen egokitzea eta mugikortasun murriztua duten pertsonentzako eta haurtxo-autoak dituzten pertsonentzako herriaren sarbideak hobetzea aipatzen dira.

Generoen arabera egindako analisiak egiaztatzen duen arabera, prozesuan parte hartu duten hiru pertsonetatik bi emakumeak izan dira. Horretaz aparte, kiroletak

bi entitatek, bi heziketa-zentrok eta bere auzotar guztien izenean jabeen komunitate batek proposamenak aurkeztu izana nabarmengarria da ere.

Herritarren Parte-hartzearen zinegotzi arduraduna den Juan Carlos Colladoren esanetan “2018an jasotako ekarpen gehienek Berango Merana haur hezkuntzako ikastetxearekin harremana izan dutela nabarmendu beharra dago. Ikasleen gurasoek Aurrekontu Partehartzaileen bidea bereganatu dute. Beraien eskaera jantokiaren kudeaketa sistema aldatzea izan da, baina hau Eusko Jaurlaritzaren zuzenezko zeregina da. Ildo horretan, Berangoko Udalak dagokion sailari eskaera luzatzeko konpromesua hartzen du.

Colladoren ustez, prozesua “oso positiboa da gure auzotarren lehenetsunak eta beharrak ezagutzea ahalbidetzen digulako, baita guztien benetako eskariekin bat datozen konponbideak eskaintzea ere”.

## Aste Santuko koloniek aktibitate dibertigarriak bultzatzen dituzte

Irteerek eta tailerrek aisialdi sortzailea eta dibertigarria eskaintzen diete haurrei

Aste Santuko koloniek aktibitate desberdinak euskaraz eskainiko dituzte apirilaren 3tik 6ra. Helburua bikoitza da: alde batek, eskolako oporraldi hauetan umeei jarduera entretenigarriak eta didaktikoak eskaintzea eta, bestetik, guraroei lana eta familia bateragarri egitea erraztea.

Ludotxikia – 2012 eta 2014 urteen bitartean jaiotako umeentzat – 10:30etik 13:30era eskainiko

da, Güeñeseko “Bizkaia abentura park”era egun erdiko irteera baten antolakuntzarekin. Ludotekan apuntatutako umeak, 2009 eta 2011 urteen bitartean jaiotakoak, leku berberara joango dira. Bestalde, Ludoklubean apuntatu direnek – 2006 eta 2008 urteen bitartean jaiotakoak- Gipuzkoako Oñatiko herrian dauden Arrikruzeko haitzuloetara egingo den txangoan parte hartuko dute. Adin hauetako koloniak Berango Merana Ikastetxean burutuko dira.

2000 eta 2005 urteen bitartean jaiotako gazteek jarduera dibertigarri desberdin izango dituzte. Asteartean Lasergunera metroan



egingo den irteerara apuntatu ahal dira, arratsaldean, 15:30etik aurrera; asteazkenean goizean, babes pertsonaleko oinarrizko ezagutza lortu ahal izango dute eta modan dauden detox zukuak egiten ikasi ahal izango dute;

ostegunean, Santa Anatik irteera bat egingo da goizean bizikletaz, eta ostiralean “Big Sup Bilbon” aktibitatea proposatzen da, 15:30etik aurrera. Kasu honetan, tailerrak Santa Anako Kultur Etxean eskainiko dira.



## EMAKUMEEN JARDUNALDIAK MARTXOKO AGENDA KULTURALEAN NABARMENTZEN DIRA

BERDINTASUNAREN ALDEKO JAIJA, MARTXOAREN 11IN OSPATUKO DENA, ELKARTASUN IZAERA DU

**B**erangoetako Kultur Etxean tailerra bereziak egongo dira martxoaren 9an, 16:30ean, sexuen berdintasuna ildo nagusitzat izanda. Ondoren, 18:15ean haur-liburute-gian, "Munduko neska" ipuin kontalaria eskainiko da. Martxoaren 10ean Berangoko emakumeen txanda izango da. Arratsaldeko zazpitan muntaia bat antolatuko da ondorengo taldeekin: Emakumeen Elkarte, Nagusien Etxeko emakume jubilatua, Arte Eszenikoen Lagunen Elkarte Kulturala (ACA-

DAE), Kultur Etxeko ATE taldea eta Berangoko emakumeen elkarteko haurrentzako zumba taldea.

Martxoaren 11n Berdintasunaren aldeko Jaia ospatuko da, Nagusien Etxeko plazan, euria egitekotan frontoira mugituko delarik. 10:30ean hasiko da, Emakumearen Elkarteko lokaleetatik irtengo den eta frontoian amaituko den martxa batekin. 13:00etatik aurrera erakundearen adierazpena irakurriko da eta Berangon Emakumeen ikerketa aurkeztuko da. Honez gain, dantzak egongo dira Trio Maran taldearen



eskutik eta jolasak eta umeentzako tailerrak ere antolatuko dira. Elkartasuna hanburgesen eta karolinaren

salmentarekin bultzatuko da. "Figuras ocultas" pelikula martxoaren 17an, 19:00etan eskaia-

niko da Berango Antzokian. Publiko guztietarako luzemetrai honek espaziora ailegatzeko borrokan sartu ziren hiru emakume afroamerikar erakusten ditu. Leku berebean, arratsaldeko zazpitan, "La gran depresión" antzezlanaren aurkeztuko da. "Luna Llena" taldeak nagusientzako muntaia hau eskainiko du, berrogeita hamarretan dauden bi emakumeak protagonistak direlarik.

Emakumearen Jardunaldien agenda kulturala "Volar" dokumentalarekin amaituko da. Honek genero indarkeria jasan duten bederatzita emakumeen sufrimendua erakusten du. Proiektzioa 19:00etan izango da, Berango Antzokian.

### Agenda Berango Antzokia

Marzo 2018ko Martxo

• Martxoak 17 // 19.00etan  
"FIGURAS OCULTAS"  
Zinea adin guztientzat.  
Gaztelaniaz. Doan.  
Espaziora heltzeko borrokan sartu ziren hiru protagonistak.

• Martxoak 18 // 18.00etan  
"BALIO MAGIKOAK"  
Magia ikuskizuna adin guztientzat. Euskaraz. Sarrera: 4€.

Magia ikuskizuna Liuba, Oliver eta Evarekin, nobedade askorekin.

• Martxoak 24 // 19.00etan  
"LA GRAN DEPRESIÓN"  
ANTZERKIA helduentzat.  
Gaztelaniaz. Sarrera: 1€.  
Protagonistak berrogeita hamar urteko bi emakume dira.

• Martxoak 25 // 18.00etan  
"MENDI TONTORREAN"

ANTZERKIA umeentzat.  
Euskaraz. Sarrera: 4 €.  
Alpinista talde batek Everest mendia gailurrera heldu nahi du.

• Martxoak 31 // 19.00etan  
"VOLAR"  
Dokumentala helduentzat.  
Gaztelaniaz. Doan. Genero indarkeria jasan duten bederatzita emakumeren bizipenak.



Para recibir la agenda por e-mail:  
[euskara@berango.org](mailto:euskara@berango.org)



Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetza)  
diruz lagundutakoa



Cehigarri honek  
Bizkaiko Foru  
Aldundiaren  
laguntza jaso du



# SABINO ARANAREN BERRORDENAZIO LANETAKO LEHEN FASEAK ZORTZI HILABETE IRAUNGO DU

PROIEKTUAK "KALE HAU ALDATUKO ETA NABARMENKI HOBETUKO DU", ALKATEAREN ARABERA

**S**abino Arana kaleko lehen fasearen lanak jada martxan jarri dira abenduan. Zortzi hilabete iraungo dute eta helburu nagusietako bat kale nagusi honen berrordenazioa da oinezkoari lehentasuna emateko eta dauden dendetara sartzera errazteko. Horretarako terrazak eraikiko dira eta hainbat pergola altxatuko dira. Mimenaga biribilgunetik hurbileko zonaldearen eta Simon de Otxandategi bidegurutzearen artean dagoen tarte honetarako esleipen-aurrekontua 1.464.080 eurokoa izan da.

Lanek hiri-berriztatzea sartzten dute eta asmoa errepideak, bai akustikoki bai bisualki, sortutako ingurumenaren gaineko eragina murriztea eta aparkalekuen sistema berrordenatzea da. Egindako obrak egun dauden aparkaleku kopurua areagotuko du eta leku berriak kalearen hasieran eta amaieran kokatuta egongo dira, erdiko partea kotxerik gabe utziz.

Irisgarritasuna legera moldatuz hobetuko da eta berdegune txikiak eta zuhaitzak landatuko dira diseinu adeitsuagoa bermatzeko. "Sabino Aranaren berrurbanizazio hau kalearen hiri-fisionomia



Laneko bi faseak eragozpenak txikiagotzeko gainjarriko dira. Kalearen irisgarritasuna hobetuko da eta oinezkoentzat adeitsuagoa izango da.

nabarmenki aldatuko eta hobetuko duen lan estrategikoa da", azaldu du alkatea den Anabel Landak. Alkateak "Berangoko auzotarrak luzeki itxarondako lana dela"

esan du "batez ere zonalde horretan bizi direnen aldetik".

Lanek eragozpenak eragingo dizkiete, batez ere, auzo horretako biztanleei "nahiz eta txikiagotzen

saiatuko garen". Horregatik hartutako neurrietako bat "bi faseen lanak gainjartzen joatea" izango da. "Proiektuaren azkeneko emaitzak merezi izango du". Anabel

Landak argitu duen arabera, lanak egiten diren bitartean auzotarren beharretara egokituko diren oinezkoentzako eta ibilgailuentzako ibilbideak prestatuko dira.

## BIGARREN ESKUKO AZOKA ARRAKASTATSUA



Bigarren eskuko Azoka Solidarioak publiko ugaria erakarri zuen Berangoko pilotalekura, hor egin baitzen eguraldi txarragatik. Etengabe euria eta hotza egin zuen arren publiko ugari egon zen eta salmentak onak izan ziren oro har. Ekitaldi honetan bildutakoa helburu sozialetara zuzenduta doa, zehazki Berangoko Cáritas elkartera, Berangoko emakumeek eskuz landutako artikuluetako salmentaren truke 1.300 euro jaso zirelarik.

## INAUTERIETAKO ALAITASUNA

I nauteriek Berango kolorez bete zuten. Familia ugari euriari aurre egin zioten parte-hartze handiko jardunaldian, umeak protagonista nagusiak izan zirelarik. Urte honetan ere finkatutako ospakizunean giro ezinhobea eta mozorroturik parte hartu zuen pertsona kopurua nabarmendu ziren.

## ALEGRÍA DE CARNAVAL

L os Carnavales llenaron Berango de colorido. Numerosas familias desafiaron a la lluvia en una jornada con una alta participación, en la que las niñas y los niños fueron los principales protagonistas. Durante otro más, sobresalió el excelente ambiente y el elevado número de personas que acudieron disfrazadas a participar de una fiesta consolidada.



## FAMILIA BATEN ZAIN JARRAITZEN DUTE

Amatza Auzoa, 5 lurreta 48215 (Goiuriko bidea). Bizkaia.  
Zentroko ordutegia: astelehenetik-ostiralera: 10:00-14:00; 16:00-19:00;  
Zapatuak: 10:00-14:00

Ba al dakizu, gaur egun, Berangoko herrian bertan batu diren 5 txakur daudela txakurtegian, adopzioaren zain? Interesaturik egonez gero, ikustera joan zaitezke, **ZAUNK**-era



Izena: **Saiko**  
Arraza: **Setter**  
Sexua: **Arra**  
Adina: **2 urte**  
Ezaugarriak:  
**Lagunkoia eta aktiboa**



Izena: **Lolo**  
Arraza: **Mestizo**  
Sexua: **Arra, zikiratua**  
Adina: **2 urte**  
Tamaño: **Txikia**  
Ezaugarriak: **Lagunkoia**



Izena: **Ron**  
Arraza: **Mestizo**  
Sexua: **Arra**  
Adina: **2,5 urte**  
Ezaugarriak:  
**Lagunkoia eta maitekorra**



Izena: **Tak**  
Arraza: **Setter**  
Sexua: **Arra**  
Adina: **3 urte**  
Ezaugarriak: **Lagunkoia, baina aktibitatea behar du**



Izena: **Spike**  
Arraza: **Spaniel Bretón**  
Sexua: **Arra**  
Adina: **3 urte**  
Ezaugarriak: **Lagunkoia, beste txakur eta pertsoekin**

## SIGUEN ESPERANDO UNA FAMILIA

Barrio de Amatza, 5 lurreta (Carretera Goiuria). Bizkaia  
Lunes a viernes: 10.00-14.00 ; 16.00-19.00 Sábados: 10.00-14.00

¿Sabías que existen 5 perros que se han recogido en el municipio de Berango y que hoy en día están en una perrera a la espera de que sean adoptados?

Si estás interesad@ en adoptar alguno de estos perros, puedes realizar una visita y conocerlos en **ZAUNK**



Nombre: **Saiko**  
Raza: **Setter**  
Sexo: **Macho**  
Edad: **2 años**  
Características:  
**Sociable y activo**



Nombre: **Lolo**  
Raza: **Mestizo**  
Sexo: **Macho, castrado**  
Edad: **2 años**  
Tamaño: **Pequeño**  
Características: **Sociable**



Nombre: **Ron**  
Raza: **Mestizo**  
Sexo: **Macho**  
Edad: **2,5 años**  
Características:  
**Sociable y cariñoso**



Nombre: **Tak**  
Raza: **Setter**  
Sexo: **Macho**  
Edad: **3 años**  
Características: **Sociable pero necesita actividad**



Nombre: **Spike**  
Raza: **Spaniel Bretón**  
Sexo: **Macho**  
Edad: **3 años**  
Características: **Sociable con perros y personas**